

# Galdegaia testu osoetan (eta II)

## Mixel Kaltzakorta Mentxaka

### Abstract

In this article the author studies the use of the focus in six full texts from the book *Sugearen errautsa* by Tartas. Altube's rule of the galdegaia or focus, approved by the Royal Academy of the Basque Language (Euskaltzaindia), states that the focus should be positioned just before the verb. The writer from Soule (Zuberoa) places the focus after the verb in most cases making his stories easier to read in that way.

### Laburpena

Artikulu honetan egileak aztertuten du Tartas idazleak zelan darabilen galdegaia *Sugearen errautsa* liburuko sei narrazio osotan. Izan ere, bada galdegaiaren legea, berau Altubek emona eta Euskaltzaindiak be onartua, zeinak dinoan galdegaia kokau behar dala aditz aurrean. Tartas idazle zuberoarrak gehien-gehienetan darabil galdegaia aditz ostean, horrela ezin errazago irakurten dirala kontakizunok.

**Keywords:** Focus or galdegaia, position of the focus, nucleus of the information, information complement

**Gako hitzak:** Galdegaia, galdegai-lekua, informazio gunea, informazio osagarria

## 0. Sartaurrea

Aurreko artikuluan osorik landu nebazan hegoaldeko ahozko testu batzuk galdegaiaren ganean; oraingo artikuluan honetan, barriz, beste testu batzuk jorratuko ditut osorik, baina idatzizkoak, eurok Tartas-ek idatziak zubereraz Sugearen errautsa liburuan, berau I. Mujikak atondua eta Alberdania argitaletxeak plazaratua.

Landu, ez ditudanez soilik egingo galdegai kontuak, zehaztu daidan zeintzuk helburu ditudan behartxo honetan: lehenengo, eta nagusiki, erakutsi gura neuke Tartas idazle zuberotarrak zer lekutan erabilten dauan galdegaia perpaus nagusietan; bigarren, azaldu nahi neuke gure idazle aztergaiak zer gunetan koketan dauan galdegaia menpeko perpausetan; eta, hirugarren, jorratu nahi neukez osterantzeko kontu batzuk be, eurok be jakingarriak.

Aitaturiko helburuok lortu guran, pauso bi emongo ditut: hasteko, testuak aztertuko ditut banan-banan (6 narrazio); amaituteko, konklusinoak emongo ditut. Hona hemen zeintzuk sei testutxo jorratuko ditudan:

1. Herioa andere noblea da
2. Historia eder bat
3. Justoaren hiltzean ez da negarrik egin behar
4. Egun batez español bat
5. Ene lumaren herexa
6. Gizon bat egun batez

Perpaus motetan, baiezkoak soilik aztertuko ditut, alde batera itzita ezezko eta itaunezkoak. Bestalde, narrazioak, zelan dagozan idatzita liburuan, halantxe erabiliko ditut hemen (zuberera ulergarrian).

## 1. Testuak aztertuten

Sugearen errautsan hainbat narrazio ageri dira, baina sartaurrean esaniko moduan, sei aztertuko ditut, banan-banan aztertu be. Bakotxean, lehenengo, aurkeztu hutsa egingo dot narrazioa bera (aditz nagusiak sartu ditut kortxete barruan; galdegaiak baltzitu) eta, hurrengo, jorratu egingo ditut perpausik perpaus. Hasi gaitezkan lehenengo narrazioa:

### 1.1. Herioa andere noblea da

Herioa [da] **andere noblea, galanta, liberala eta maitagarria**. [Edekitzen du] gizonari eta emazteari **bat edo biga edo hirur** edo nahi bazara gehiago, baten [emaiten du] **ehun**, biden mila, hiruren milioi bat, ez daki zenbat. [Edekitzen du] **bizitza korporala eta denborala**, baina [emaiten ] **berehala** bizitza espirituala eta eternala. Korporalak ez du konparazionerik espiritualarekin, ez denboralak eternalarekin, alabaina espirituala [emaiten du] **korporalaren** eta eternala denboralaren. Nork ez du erranen herioa dela andere noble bat eta liberal bat? (...) (115or.)

Lehenengo perpausian aditz atzean dago galdegaia. Honan idatziko litzateke gaur egun:

Herioa **andere noblea, galanta, liberala eta maitagarria** [da]

Bigarren perpausian zenbat perpaus dagozan (nagusi zein menpeko), hainbatetan agertuten da aditz ostean galdegaia. Honan erabiliko litzateke gaur egun:

Gizonari eta emazteari **bat edo biga edo hirur** [edekitzen du] edo gehiago

nahi bazara, baten **ehun** [emaiten du],  
biden mila, hiruren milioi bat, ez daki  
zenbat.

Perpaus horretan *biden* eta *milaren* artean elipsian dago aditza (*emaiten du*). Galdegaia *mila* da. Testuko hurrengo perpausuan, berau elkartua, perpaus juntau bietan aditz ostean dago galdegaia. Ipin daiguzan galdegaioak aditz aurrean, zelan egiten daben idazleak gaur egun, halan:

**Bizitza korporala eta denborala**  
[edekitzen du] baina bizitza espiritual  
eta eternala **berehala** [emaiten]

Ondorengo perpausuan, berau be elkartua, lehenengo perpaus elkartua ez dogu aztertuko, ezezka dago-eta. Bigarren perpaus elkartua (alabainaren ondokoa) aditz atzean dago galdegaia. Hona hemen zelan geratuko litzatekeen perpausa, kokauz gero galdegaia bere leku kanonikoan, aditz aurrean:

Korporalak ez du konparazionerik  
espiritualarekin, ez denboralak  
eternalarekin, alabaina espiritual  
**korpolararen** [emaiten du] eta  
eternala denboralaren.

Lehenengo testu aztergai horretan, perpaus nagusi guzti-guztietan aditz ostean ageri da galdegaia.

## 1.2. Historia eder bat

**Historia eder bat** [irakurtzen dugu] bi adiskide handiz eta leialez, zoinak deitatzetik baitziren Damon eta Pythias, bi adiskide fidelak eta segurak. Bi adiskide haietaz [egiten dute] menzione **Ciceron eta Valerius bi autor handi haiek**.

Historiak [dio] -eta ederra delakoz [nahi dut] ene liburutto honetan **iskiribuz ezarri**- Denis Sirakusako tiran handi hark bi adiskide brabe eta leial haietarik bat kondenatu zuela hiltzera. Kriminallak [galde egin zuen] **hamabost egun epe eta espazio**, presondegitik jalgirik, bere adiskideen eta askazien ikustera joateko. Justiziak [refusatu zuen] kriminalari **galdatu zuen epe eta espazioa**, beldurrez behin largantza balu presondegitik jalgitzeko, ez ladin bihur kartzelara, ez lezan bere hitza eduki, eta justiziaz trufa ladin, behin kanpoa eta libertatea erdietsi baleza.

Zer egin du bertze adiskideak? [Sartzen da] **kartzelan** adiskide kondenatuaren berme, pakto eta kondizione eginik, kondenatua ez balitz bihurtzen hamabost egunen barnean, hark iragan behar zuen pena eta suplizioa patituko zuela haren lekutan. Pakto horren azpian bata [jalgi da] **kartzelatik** eta bertzea **han** [sartu] haren plazan.

Zer gertatu da? Hitza zen bezala, hamabost

egunen barnean kriminala [itzuli zen] **presondegiala**, bere adiskidearen bere bermegoatik delibratzera. Denis tiranak, ikusirik bataren amodioa eta bertzearen leialtatea, eta admiraturik bi adiskide haien korajea, kriminalari eta kondenatuari [eman zuen] **bizia**, eta biak [otoitu] bera heren adiskide **bere konpanian rezebi lezaten**, haien adiskide [nahi zela bizi eta hil]. (59-60or)

Lehenengo paragrafoa:

Lehenengo perpausuan, bertoko menpeko perpausuan, berau erlatibo (zeinismoa), aditz ostean dago galdegaia (*Damon eta Pythias*). Parauz gero galdegaia aditz aurrean:

(...), zoinak *Damon eta Pythias*  
deitatzetik baitziren, bi adiskide  
fidelak eta segurak.

Bigarren paragrafoa:

Historiak [dio] -eta ederra delakoz  
[nahi dut] ene liburutto honetan  
**iskiribuz ezarri**- Denis Sirakusako  
tiran handi hark **bi adiskide brabe  
eta leial haietarik bat kondenatu  
zuela hiltzera**.

Hor, kenduta tartekia (marra artean), honako eskemari erantzuten deuto perpausak:

“Historiak dio PERPAUS KONPLETIBOA”

Hor, perpaus konpletibo osoa da galdegaia, baina perpaus konpletiboaren barruan menpeko aditzaren atzean dago galdegaia (*hiltzera*). Tartekia kenduta, honan emongo litzateke perpaus osoa gaur egun, batez be idatzizko hedabideetan:

Historiak Denis Sirakusako tiran  
handi hark **bi adiskide brabe eta  
leial haietarik bat hiltzera  
kondenatu zuela** [dio].

Ezin nekagarriago irakurten da. Askotan, tradizioan, subjektua ipintzen da aditz nagusiaren ostean be -ondo ipini be- (*Dio historiak...*).

Tartekia hor itzi dogu azterkizun. Oratu deiogun:

-eta ederra delakoz [nahi dut] ene liburutto honetan **iskiribuz ezarri**-

Gaur egun honan-edo idatzizko litzateke:

-eta ene liburutto honetan **iskiribuz ezarri**  
[nahi dut] ederra delakoz-

Alderatu, irakurlea, bata eta bestea. Eta ondo aukeratu (nire ustez, aldetxo dago). Pasa gaitezkan bigarren perpausera:

Kriminalak [galde egin zuen] **hamabost egun epe eta espazio**, presondegitik jalgirik, bere adiskideen eta askazien ikustera joateko.

Perpau nagusian ez da beteten galdegaiaren legea (aditz ostean dago galdegaia - **hamabost egun epe eta espazio**-); menpekoetan, ostera, danetan beteten da.

Hona hemen hirugarren perpaua, azkena:

Justiziak [refusatu zuen] kriminalari **galdatu zuen [zion] epe eta espazioa**, beldurrez behin largantza balu presondegitik jalgitzeko, ez ladin bihur kartzelara, ez lezan bere hitza eduki, eta justiziaz trufa ladin, behin kanpoa eta libertatea erdietsi baleza.

Erreparatan badeutsagu perpau nagusiar, bertan aditz atzean dago galdegaia (**galdatu zuen [zion] epe eta espazioa**); menpeko perpauetan, ostera, beteten da galdegaiaren legea. Bada zer aztertu jakingarri bat, **beldurrez** osagaia eta subjuntiboen bidezkoa:

(...), bildurrez (...) ez ladin bihur kartzelara (...)

Hor, adizlagun bat dogu (bildurrez), eta beronen osagarri perpau bat (*ez ladin bihur kartzelara*). Gaur egun honan-edo emongo genduke:

(...) kartzelara bihur ez dadin beldurrez (...)

Bada aldea bien artean, baina txikerra. Baina aldea larria be larria gertatu leiteke subjuntibodun osagarria luzea izanez gero.

Hirugarren paragrafoa:

Zer egin du bertze adiskideak? [Sartzen da] **kartzelan** adiskide kondenatuaren berme, pakto eta kondizione eginik, kondenatua ez balitz bihurtzen hamabost egunen barnean, hark iragan behar zuen pena eta suplizioa patituko zuela haren lekutan. Pakto horren azpian bata [jalgi da] **kartzelatik** eta bertzea **han** [sartu] haren plazan.

Alde batera itzita lehenengo perpaua, galdezka dago-eta, heldu deiogun bigarrenari. Perpau nagusian, aditz ostean dago galdegaia (**kartzelan**), baita azkenengo perpau menpekoan be, berau konpletiboa (*haren lekutan*). Beste perpau menpekoetan leku kanonikoan dago galdegaia: aditz aurrean.

Azkenengo perpausean, hau da, hirugarrenean, perpau bi dagoz: lehenengoan aditz atzean dago galdegaia (**kartzelatik**); bigarrenean, aurrean (**han**). Aztertu daigun atzen paragrafoa:

Zer gertatu da? Hitza zen bezala, hamabost egunen barnean kriminala [itzuli zen] **presondegiala**, bere adiskidearen bere bermegoatik delibratzera. Denis tiranak, ikusirik bataren amodioa eta bertzearen leialtatea, eta admiraturik bi adiskide haien korajea, kriminalari eta kondenatuari [eman zuen] **bizia**, eta biak [otoitu] bera heren adiskide **bere konpanion rezebi lezaten**, haien adiskide nahi zela bizi eta hil.

Alde batera itzita lehenengo perpaua (itauna da-eta), bigarrenean jokera diferenteak ageri dira non kokau galdegaia perpau nagusian eta menpekoan: lehenengoan aditz ondoan dago galdegaia (**presondegiala**); bigarrenean, aurrean (*bermegoatik*).

Azkenengo perpausean, zati bi dagoz *eta* juntagailuak bananduta. Hasi gaitzan lehenengo partetik. Ikusi daigun non dagoan kokauta galdegaia perpau nagusian:

- Denis tiranak, (...) kriminalari eta kondenatuari [eman zuen] **bizia**,

Eta non, menpeko perpauetan (kursiban):

- **IKUSIRIK** *bataren amodioa eta bertzearen leialtatea*,
- **ADMIRATURIK** *bi adiskide haien korajea*,

Hori guztiori honan emongo litzateke gaur egun, galdegaiaren legea aplikauz gero:

Denis tiranak, *bataren amodioa eta bertzearen leialtatea* **IKUSIRIK**, eta *bi adiskide haien korajea* **ADMIRATURIK**, kriminalari eta kondenatuari **bizia** [eman zuen],

Holan sekuentziauta, nekagarriago irakurten dira perpauok. Segiduta azken paragrafoan, hona hemen zer geratzen zaigun:

eta biak [otoitu] bera heren adiskide **bere konpanion rezebi lezaten**, haien adiskide [nahi zela bizi eta hil]

Aditz ostean dago subjuntibo bidezko perpaua (baltzez), berau galdegaia. Jarraian, perpau konpletiboa dator, hegoaldean ez legez erabilia ordena aldetik (*bizi eta hil nahi zela*). Iparraldeko proposamena egokiago da, batez ere menpeko perpau juntu biak luzeak badira.

### 1.3. Justoaren hiltzean ez da negarrik egin behar

Justoa ez da hiltzen, pizten da. Hargatik sailduen hiltzea [deitatzen da] **sortzea eta piztea**, eta ez batere hiltzea; zeren hala nola haur bat sortzen denean bere amaren sabeletik mundura, leku tipitik eta leku hertsitik jalgirik, sartzen baita leku handi, zabal eta largo batetara, zoin baita mundu haur, hala-hala justoa mundu honetarik jalgitzen denean, leku hertsitik eta leku tipitik [doa] **leku handi, zabal eta largo batetara**, zoin baita zerua eta zeruko erresuma, zein konparazione gabe baita handiago ezi ez lurra, eta lurra zeruarekin konparaturik ez da puntu simple bat baizik. Hala dio batek: *Terra instar coeli est punctum*; eta zeruaren handitasuna profetak admiraturik dio: <<O, Israel, ala baita handi Jainkoaren etxea eta haren posesioaren lekua! ala baita zabal eta largo! **handi** [da], ez du finik; **gora** [da], inmentso eta relebatu>>. Hargatik justoaren hiltzea [deitatzen da] **sortzea**, zeren leku hertsitik, baita lurra, joaten baita leku handiala eta largoala, baita **zerua**; eta nola haur baten sortzean ez baitu nehork egiten negarrik, eta bai irri, bere forman justoaren hiltzean ez da negarrik egin behar, eta bai alegeratu eta **Jainkoa** [laudatu], zeren halakoa ez da hiltzen, pizten da, [sortzen da] **zeruan**. (118-119or)

Alde batera itzita lehenengo perpausa, ezezka dago-eta, bigarren perpausean, perpaus nagusian, aditz atzean dago galdegaia (sortzea eta piztea). Hurrengo perpausean be, menpekkoa, aditz ostean dago galdegaia (mundura). Hemen birrinduten da Altuberen beste lege bat be, zeinak dinoan menpeko perpausa amaitu behar dala menderagailuz (-enean). Perpaus hori honan emongo litzateke gaur egun:

(...), zeren hala nola haur bat bere amaren sabeletik *mundura* sortzen

denean (...)

Aditza lar urrun egiten da, eta horrek dakar irakurketea nekezago bihurtutea alperrik. Bada erdibideko jokabide bat, galdegaia aditz aurrean parauta, baina osagai bat, *bere amaren sabeletik*, aditz atzera eroanda:

(...), zeren hala nola haur bat *mundura* sortzen denean bere amaren

sabeletik (...)

Hurrengo perpausean beteten da galdegaiaren legea, baina ez ondorengo bietan, zeinotan aditz atzean dagoan galdegaia. Azkenengo perpaus biotan be hausten da Altuberen beste legea be, ez dabez-eta azkenengo lekuan menderagailua (*bait-*). Galdegaiok parauz gero euren leku kanonikoan, aditz aurrean, hona emoitza:

(...), *leku handi, zabal eta largo batetara* [sartzen baita], [zoin] *mundu haur*

[baita], (...)

Itsaso beteko aldea dago jatorrizkotik aldaerara. Hurrengo perpausean, denborazkoa (, *hala-hala justoa mundu honetarik jalgitzen denean*), beteten da galdegaiaren legea. Ikusi daiguzan hurrengo perpausak:

(...), leku hertsitik eta leku tipitik [doa] **leku handi, zabal eta largo batetara**, zoin baita zerua eta zeruko erresuma, zein konparazione gabe baita handiago ezi ez lurra, (...)

Hirurotan aditz ostean dago galdegaia (**leku handi, zabal eta largo batetara** / zerua eta zeruko erresuma / handiago ezi ez lurra ), eta azken perpaus biok ez dira amaituten menderagailuz (*bait-*). Hiru galdegaiok (kursiban) ipiniz gero aditz aurrean, hona hemen zelako emoitza dogun:

(...), leku hertsitik eta leku tipitik **leku handi, zabal eta largo batetara** [doa], zoin *zerua eta zeruko erresuma* [baita], zein konparazione gabe *handiago ezi ez lurra* [baita], (...)

Itzelezko aldea dago jatorrizko sekuentziatik (non errespetetan ez dan galdegaiaren legea) aldaerara (zeinetan beteten dan Altuberen legea). Hurrengo perpausa ezezka dago (, *eta lurra zeruarekin konparaturik ez da puntu simple bat baizik.*), eta ondoko perpausera pasako gara, puntu ondokora, kortxete arteko informazinora:

<<O, Israel, ala [baita] *handi* Jainkoaren etxea eta haren posesioaren lekua! ala [baita] *zabal eta largo!* **handi** [da], ez du finik; **gora** [da], inmentso eta relebatu>>

Lehenengo perpaus bietan, eurok menperatuak, hautsi egiten da galdegaiaren legea (galdegaiak kursiban), eta hurrengo bietan, errespetau (galdegaiak baltzez). Idazleari, Tartasi, ez jako buruan pasa honakorik egitea:

<<O, Israel, ala Jainkoaren etxea eta haren posesioaren lekua *handi* [baita]! ala *zabal eta largo* [baita]! (...)>>

Oso nekagarria egiten da irakurtea, batez be, lehenengo galdegaia, luzea, aditz aurrean dago-eta kokauta. Badago beste kontu bat be, interesgarri-interesgarria. Erreparau daigun Tartasek zelan darabilen:

(...); **gora** [da], inmentso eta relebatu>>

Hau da, enumerazioan, lehenengo osagaia soilik dago aditz aurrean, besteak atzean dagoz-eta. Gaur honan idatziko genduke:

(...); **gora, inmentso eta relebatu** [da] >>

Aldetxoa dago batera idatzi edo bestera. Eta zertan esanik ez, enumerazioa osatuta badago osagai askoz eta konplexoz.

Oratu deiogun azkenengo perpausari, berau oso luzea:

Hargatik justoarean hiltzea [deitatzen da] **sortzea**, zeren leku hertsitik, baita lurra, joaten baita leku handiala eta largoala, baita zerua; eta nola haur baten sortzean ez baitu nehork egiten negarrik, eta bai irri, bere forman justoarean hiltzean ez da negarrik egin behar, eta bai alegeratu eta **Jainkoa** [laudatu], zeren halakoa ez da hiltzen, pizten da, [sortzen da] **zeruan**.

Lehenengo partean, zeina *eta* juntagailuraino helduten dan, lautatik lautuan hausten da galdegaiaren legea. Menderagailuak be ez dagoz atzen lekuan, ezpabere lehenengoan. Dana parauz gero gaurko ortodoxian, hona hemen emoitza:

Hargatik justoarean hiltzea **sortzea** [deitatzen da], zeren leku hertsitik, *lurra* [baita], *leku handiala eta largoala* joaten [baita], *zerua* [baita];

Hurrengo perpausak ezezka-eta, ez ditugu jorratuko (Paragrafoan, gainerako informazioan, lehenengo perpaus biak ezezka dagoz; hirugarrenean aditz aurrean dago galdegaia **-Jainkoa-**; eta azkenengoan, ostera, atzean **-zeruan-**).

#### 1.4. Egun batez español bat

Egun batez español bat bere bidean zoala, [ediren zuen] **hor bat** borta batean, eta horak [ausiki zuen] española iragaitean **zangotik**, horaren kontre aski ontsa defendatu faltaz. Bertze egun batez españolak hor hura bera [ediren zuen] borta hartan berean lo [zetzala] eta, ezpata baitzuen bere saihetsean, idokirik eta biluzurik bere maginatik eta bere furrebotik, hora [hil zuen] **ezpata kolpe bat emanik**, eta gero, ikusi zuenean hora hilik edo hiltzen, [erran zuen] horari bere lengoajea, espáñolez: *Inimigos tienes e dormes?*, erran nahi baita gure lengoajea euskaraz: “Etsaiak ukan eta lo egiten duk?”

**Arrazoi** [zuen] españolak hala erraitera horari, zeren etsaiak dituenak ez baitu behar lo egin, baina bai egon iratzarri, zoin aldetik jinen den egunaz edo gauaz haren atakatzera.

Bada, neure adiskidea, herioa baita gure etsaia eta Jaunaren mezua eta haren mandataria, **arrazoi** [ukanen du] zuri eta niri erraiteko jin dadinean, ez bagaitez egon presto grazian haren aiduru eta beha: *Inimigos tienes y dormes?* Etsaia oren oroz **bortan** [dugu], **gure etxean** [dugu]; gaitezen egon prest grazian, nahi ez badugu ikusi arimen hiltzea, galtzea eta ruina mendu totala. (46-47or)

Lehenengo paragrafoa:

Lehenengo perpausa alkartua da, eta perpaus juntau biz dago osatuta. Hona hemen, alde batera itzita menpeko perpausak:

Egun batez (...) [ediren zuen] **hor bat** borta batean, eta horak [ausiki zuen] (...) española **zangotik**,

Perpaus juntau batean zein bestean aditz atzean doa galdegaia. Perpaus juntau menpekoetan, ostera, aditz aurrean dago galdegaia. Pasa gaitezcan bigarren perpausera, lehenengo partera:

Bertze egun batez españolak hor hura bera [ediren zuen] borta hartan berean lo [zetzala] (...)

Ikusten danez, ez dot baltzitu galdegaia, ez nago bape seguru-eta zein dan. Begitanduten jat *lo zetzala* dala. Parauz gero aditza galdegaiaren ostean, nekagarria bihurtuko litzateke perpausaren irakurketea. Goazen bigarren partera:

eta, **ezpata** [baitzuen] bere saihetsean, [idokirik eta biluzurik] **bere maginatik eta bere furrebotik**, hora [hil zuen] **ezpata kolpe bat** [emanik],

Lehenengo menpeko perpausetan beteten da galdegaiaren legea, eta ez bigarrenean, baina batean zein bestean ez da jagoten Altuberen beste lege bat, zeinak dinoan menpeko perpausetan menderagailua egon behar dala azkenengo lekuan, eta gure adibide bietan menderagailuak, *bait-* eta *-(r)ik*, ez dagoz atzen lekuan euren perpausetan.

Itzulita berriro paragrafora, bertoko azken sekuentzian, perpaus nagusian, aditz ostean dago galdegaia, berau perpaus kompletiboa (**hora** [hilik edo hiltzen]); menpeko perpausetan, barriz, aditz aurrean dago galdegaia (**hora**).

Paragrafoan beste perpaus bat dago jakingarria:

, [erran zuen] horari bere lengoajea, espáñolez: *Inimigos tienes e dormes?*,

Ohartu gaitезan, holan idatzita, arinago irakurten dala gaur eguneko moduan baino (ZERA edo HAU txertautu):

, ZERA/HAU [erran zuen] horari bere lengoajean, españolez: *Inimigos tienes*

*e dormes?*,

Bigarren paragrafoa:

**Arrazoi** [zuen] españolak **hala** [erraitera] horari, zeren etsaiak dituenak ez baitu behar lo egin, baina bai [egon] **iratzarri**, **zoin aldetik** [jinen den] egunaz edo gauaz **haren** [atakatzera].

Galdegai bat (**iratzarri**) ez beste guztiak dagoz aditz aurrean. Menderagailu bat , *-t(z)era* (erratera), ez dago azken lekuan, halan aginduten badau be Altubek. Honen arabera, honan beharko leuke:

**Arrazoi** [zuen] españolak horari **hala** [erraitera],

Hirugarren paragrafoa:

Bada, neure adiskidea, **herioa** [baita] gure etsaia eta Jaunaren mezua eta haren mandataria, **arrazoi** [ukanen du] zuri eta niri [erraiteko] [jin dadinean], ez bagaitез egon presto grazian haren aiduru eta beha: *Inimigos tienes y dormes? Etsaia oren oroz* **bortan** [dugu], **gure etxean** [dugu]; [gaitезen egon] **prest** grazian, nahi ez badugu ikusi **arimen** [hiltzea, galtzea] eta ruinamendu totala.

Hor, ikusita baltzuneak, perpaus guztietan (nagusietan zein menpekoetan) aditz aurrean dago galdegaia, baten izan ezik, non aditz atzean dagoan, **prest** (zalantza dot hori ete dan galdegaia, edo *grazian*. Edozein modutan, bata zein bestea izan, biak dagoz aditz atzean). Konturau gaitезan galdegai guztiok osagai bat edo bi dabezela, baina beti dira laburrak.

### 1.5. Ene lumaren herexa

Ene adiskidea: salbatu nahi bazara, otoi beha zakizkit; [ezarriko zaitut] **bide on batean**, eta bide hark [gidatuko zaitu] **xuxen eta segurki** paradisuaren erdiala. Bidea [da] **xuxen, segur, on, aski aise** eta ez hanbat gaitез eta hanbat kexu ere. Jarraiki zaitез eta [segi ezazu] **ene lumaren herexa eta hatza**. [Zoaz] **aintzina**, alde baterat ez bertzerat, ezker ez eskuin makurtu gabe, eta [edirenen duzu] bide haren buruan **hiltze on bat** eta, haren ondoan, Jainko bat zure aiduru, koroa bat eskuan, **zure** [rekonpensatzeko]. [Promes emaiten dizut] aingeruen eta gizonen aitzinean Jainkoaren partez eta

ene ohorearen gainean **ene errana egia frogatuko duzula**; eta ez bada hala, [errazu] mundu orori **afrontur bat** [naizela], gizagaixto bat [naizela], apez gaixto bat [naizela], eta ene liburutto honek eta nik [merexi dugula] su handi batetan **bizirik** [erre gaitезen]. (84-85or.)

Lehenengo hiru perpausetan aditz atzean dago galdegaia. Goazen hurrengo perpausera, laugarrena:

[Zoaz] **aintzina**, alde baterat ez bertzerat, ezker ez eskuin makurtu gabe, eta [edirenen duzu] bide haren buruan **hiltze on bat** eta, haren ondoan, Jainko bat zure aiduru, koroa bat eskuan, **zure** [rekonpensatzeko].

Hor, ikusten dogunez, perpaus juntauetan aditz atzean doaz galdegaia (**aintzina** eta **hiltze on bat**), baina perpaus menpekoan, aditz aurrean (**zure**).

Aztertu daigun azkenengo perpausa:

[Promes emaiten dizut] aingeruen eta gizonen aitzinean Jainkoaren partez eta ene ohorearen gainean ene errana **egia** [frogatuko duzula]; eta ez bada hala, [errazu] mundu orori **afrontur bat** [naizela], gizagaixto bat [naizela], apez gaixto bat [naizela], eta ene liburutto honek eta nik [merexi dugula] su handi batetan **bizirik** [erre gaitезen]

Perpaus osoa perpaus konpletiboz dago josita, eta bat be ez dago aditz nagusiaren aurrean. Dan-danak doaz atzean. Ipini daiguzan zerrenda baten:

- [Promes emaiten dizut] (...) ene errana **egia** [frogatuko duzula];
- [errazu] (...) **afrontur bat** [naizela],  
gizagaixto bat [naizela],  
apez gaixto bat [naizela],  
eta (...) [merexi dugula]  
su handi batetan **bizirik** [erre gaitезen]

Tartasek perpaus konpletiboak, goiko horreek ez eze, baita gainerakoak be, darabilaz aditz nagusiaren atzean. Eta ez aurrean, honan:

- (...) ene errana **egia** [frogatuko duzula] [promes emaiten dizut];
- (...) **afrontur bat** [naizela] [errazu],  
gizagaixto bat [naizela],  
apez gaixto bat [naizela],

eta (...) su handi batetan **bizirik** [erre gaitezen] [merexi dugula]

Laburtuteko, perpaus nagusian behin be ez da agertu aditz aurrean galdegaia, bai oster, perpaus menpekoetan, eta eurotan laburrak dira galdegaiak.

Ondorengo testuan, azkenengoa, testua bera zutabe bitan ipiniko dot: ezkerrekoan jatorrizko testua dagoanean; eskumakoan, barriz, gaur idatziko litzateken legez nagusiki.

### 1.6. Gizon bat egun batez

<p>San Damaszeno jaunak gure miseria <b>ontsa eta ederki</b> [erakusten du] figura eta parabola eder honetaz. <b>Dio</b> saildu hark gizon bat egun batez animalia gaixto eta kruel baten ihesi zoala, zoin [deitatzen baita] <b>unicornis</b>, [erori zela] <b>leza, osin eta xilo handi batera</b>; [erortzean] <b>leza hartara</b>, [lotu zela] <b>tin-tinka</b> zuhaintze edo arbre xipi bati, zoin [baitzen] <b>leze haren bazterrean, esperantza</b> [zuelarik] <b>seguru</b> [zela], bere oinak <b>leze haren zolan</b> [bermatu] eta bere eskuez eta bere besoez <b>pareteko arbrea</b> [tinkaturik]. [So eginik] gizon hark <b>leku triste hari</b>, [ikusi du] <b>bi sagu</b>, bata xuri, bertzea beltz, zuhaintze haren zainen eta razinen [jaten eta trenkatzen], eta kasi zuhaintzea, zainak trenkatu, erortzera zoala. [Ikusi du] halaber osin eta leze haren zolan <b>dragon terrible eta horrible bat</b>, ahotik <b>su eta ke</b> [aurtikitzen zuela], [iduri] ezi inguruneok <b>bizirik</b> [iretsi eta deboratu behar zituela]. [Ikusi du] <b>haboro</b>: leze osin haren bi bazterretarik <b>laur suge handiren buruak</b> [jalgitzen zirela]. [Ikusi</p>	<p>San Damaszeno jaunak figura eta parabola eder honetaz gure miseria <b>ontsa eta ederki</b> [erakusten du]. Gizon bat egun batez animalia gaixto eta kruel baten ihesi zoala, zoin <b>unicornis</b> [deitatzen baita], <b>leza, osin eta xilo handi batera</b> [erori zela] [dio] saildu hark; <b>leza hartara</b> [erortzean], zuhaintze edo arbre xipi bati <b>tin-tinka</b> [lotu zela], zoin <b>leze haren bazterrean</b> [baitzen], <b>esperantza</b> [zuelarik] <b>seguru</b> [zela], bere oinak <b>leze haren zolan</b> [bermatu] eta bere eskuez eta bere besoez <b>pareteko arbrea</b> [tinkaturik]. Gizon hark <b>leku triste hari</b> [so eginik], <b>bi sagu</b> [ikusi du], bata xuri, bertzea beltz, zuhaintze haren zainen eta razinen [jaten eta trenkatzen], eta kasi zuhaintzea, zainak trenkatu, erortzera zoala. Halaber osin eta leze haren zolan <b>dragon terrible eta horrible bat</b> [ikusi du], ahotik <b>su eta ke</b> [aurtikitzen zuela], inguruneok <b>bizirik</b> [iretsi eta deboratu behar zituela] [iduri (duela)]. <b>Haboro</b> [ikusi du]: leze osin haren bi bazterretarik <b>laur suge handiren buruak</b> [jalgitzen zirela]. <b>Goiti</b> [so eginik],</p>
---	--

du] **goiti** [so eginik], zuhaintze haren adarretan behera **ezti gotera bat** [erortzen zela] [ikusi du] eta, kontsideratu gabe pean eta bazterretan danjerak zonbat ziren handiak, gizon hura [zegoela] **ahoa zabaldurik ezti haren goteraren** [jateko eta gozatzeko] [zegoela].

**Figura eta parabola honen esplikazionea** [entzun ezazu], [nahi baduzu ikusi eta ezagutu] **ontsa** zure miseria eta kondizione miserablea. Unicornis, bestia gaixto eta kruel hura, [da] **herioa**, gizonari eta emazteari gerla oren oroz egiten duena. Osin eta leze hura [da] **mundua, tribulazione eta kalamitate oroz** [betea]. Zuhaintze edo arbre ttipi hura [da] **gure bizia** edo gure biziaren eta mesura, zoinen zainak bi sagu haiek -xuriak eta beltzak, gauaren eta egunaren orenek- [jaten, mozten, hertzen eta trenkatzen baitituzte]. Laur sugeak [dira] **laur elementuen kalitate diferentak**: hotza, beroa, idorra, bustia. Dragon hura [da] **infernua**. Ezti haren gotera [da] **munduko plazerra eta boluptatea**, gure tronpagarria, gure galgarria; **hari** [beha gaude], **bertze danjerak oro** [ahaztera utzirik].

Neure adiskidea: **zure miseria zonbat handi den** [kontsidera ezazu]. Gaua, eguna, beroa, hotza, idorra, bustia, mundua, infernua zure kontre [dira]. Haien artean gaixki zara. **Miseri hortaz** [oroiturik], **zure hiltzeaz** [oroit zaitez], **ontsa** [hilik] [nahi bazara salbatu]. (56-

salbatu] <b>ontsa</b> [hilik]. (56-57or.)	57or.)
---	--------

Testua, Tartasen erara idatzita askoz errezago irakurten da gaurko modura idatzita baino.

## 2. Konklusinoak

Hona hemen balantzea (6. testua alde batera utzita):

1. Perpaus nagusiei jagokenez, galdera bi dagoz erantzuteko: batetik, galdegaiak zein kokalekutan darabilazan idazleak; bestetik, galdegaiaren luze-laburrak eragiten ete deutson galdegaiari non kokau. Tartasek gehiagotan hausten dau galdegaiaren legea J. B. Agirre asteasuarrak baino (Hegatsez 34.an ikusi genduanez, % 80an); galdegaiaren luze-laburrak be (Agirrerren azterketan legez) zerikusia dau zer kokaleku hartu behar daben galdegaiak: laburra bada, aurean zein ostean; luzea bada, beti atzean. Hori guztiori dala-eta, aditza ezin aurrerago darabil (Agirrek egiten duen moduan).
2. Perpaus menpekoei jagokenez, eurotan galdegaia menpeko aditzaren atzean darabil idazleak gehien batean. Hona hemen adibide batzuk, garrantzitsuenak (baltzez, galdegaiak; maiuskulaz, menderagailuak):

### ERLATIBOAK

- a) ZEIN BAIT- menderagailudunak
  - Historia eder bat irakurtzen dugu bi adiskide handiz eta leialez, ZOINAK deitazten BAITziren **Damon eta Pythias**, biak adiskide fidelak eta segurak.
  - , hala-hala justoa mundu honetarik jalgitzen denean, leku hertsitik eta leku tipitik [doa] leku handi, zabal eta largo batetara, ZOIN BAITa **zerua eta zeruko erresuma**,
- b) BAIT- menderagailudunak
  - Hargatik justoarene hiltzea deitazten da sortzea, zeren leku hertsitik, BAITa **lurra**, joaten baita leku handiala eta largoala, BAITa **zerua**;

### KONPLETIBOAK

- Historiak [dio] -(...)- Denis Sirakusako tiran handi hark **bi adiskide brabe eta leial haietarik bat** kondenatu zueLA **hiltzera**.

Perpaus konpletibo guzti-guztiak aditz nagusiaren ostean darabiltza Tartasek.

### DENBORAZKOAK

- ; zeren hala nola haur bat sortzen deNEAN bere amaren sabeletik **mundura**, leku tipitik eta leku hertsitik jalgirik, (...)
- eta gero, ikusi zueNEAN **hora hilik edo hiltzen**

### KAUSALAK

- ;ZEREN hala nola haur bat sortzen denean bere amaren sabeletik mundura, leku tipitik eta leku hertsitik jalgirik, sartzen BAITa **leku handi, zabal eta largo batetara**,
- Hargatik justoarene hiltzea deitazten da sortzea, ZEREN leku hertsitik, baita lurra, joaten BAITa **leku handiala eta largoala**, baita zerua;

Zelako arauak emon ditugun perpaus nagusietarako galdegai-lekuaren ganean, antzekoak emon leitekez mendeko perpausetarako be.

Begiratutxo bat joz gero goiko menpeko perpausotara, erreparauko dogu menderagailuak (-*ela, bait*-,...) ez dagozala kokauta azkenengo lekuan perpausuan, nahiz eta halantxe agindu Altubek, eta halantxe erabili, zoritxarrez, gaur egun nagusiki idatziz.

Laburpen orokorra egiteko, alderatuz gero, batetik, zelan erabilten dan euskerea gaur eta, bestetik, zelan erabilten eban Tartasek, ez dabe alkarren antzik, ia antagonikoak direla emoten dabe. Baina zer euskera mota irakurten da errezago, gaurkoa ala idazle klasikoena?

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

## 3. Bibliografia

- Altube, S. (1975). *Erderismos*. Bermeo: Euskaltzaindia.
- Hidalgo, V. (2002). Hitzzen ordena esaldian, *Senez* 25 zb.
- Kaltzakorta Mentxaka, M. (2003). Galdegai-lekua testu hastapenetan, *Hegatsez* 34
- Mitxelena, K. (1981). Galdegaia eta mintzagaia euskaraz. *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*. Bilbo: Univ. de Deusto.
- Osa, E. (1990). *Euskararen hitzordena*. Euskal Herriko Unibertsitatea
- Tartas (1996). *Sugearen errautsa*. Alberdania
- Villasante, L. (1975). Hitzaurre gisa. In S. Altube, *Erderismos*. Euskaltzaindia.
- Villasante, L. (1980). *Sintaxis de la oración simple*. EFA. Serie Eleizalde